

## Bakerako lanabesa

**EZ** da sekula honenbeste idatzi honen gauza gutxi esateko. Hauxe dateke, zoritxarrez, azken hilabeteotan egunkari gehientsuenen iritzi sailek negoziazio politikoaz argitaratu dutena irakurri eta gero ateratzen den lehen konklusioa. Izen handiko komentaria askotok bere hitz jarioaren mamia murriztera jo du, ezinbestean 'negoziarioari ez' sinplekerian eroriz, bi hitzetan esan daitekeena zenbait sasi-argumentazio etiko zein politikorekin jantzen badute ere. Ezer gutxi ekarri diote editorial eta komentario bukaezinok euskal gizarteari, Corcuera ministroak esandakoak ere finago batez errepikatzeaz aparte, noski.

Negoiazio politikoaren auzia, esanak esan, Euskal Herriko etorkizunari so egin nahi dion edonork kontutan hartu behar du, ez bairik gabe. Nola errefuxatu denok pairatzen dugun gatazka mingarriari konponbiderik eman diezaiokeen bide hau? Izan ere, gatazka, Hego Euskal Herria eta Estatu espainola aurrez aurre jartzen dituen gatazka alegia, bere horretan dirau, Ajouria Eneko Itunak berak, nahitaez, onartu behar izan duenez.

Begi bistakoa da, beraz, hamabost urte igaro ondoren Estatuak ezin izan dituela, eginahalak egin arren, euskal erreibindikazioak zokoratu proposamen estatutario ustelaren bidez. Ukaezin bilakatu den errealitate honen aurrean ezin da egungo statusaren legitimitatea aldarrikatu, hainbat alderdik egiten duen moduan, euskaldunok geure gizartea eraikitzeke zer arau behar ditugun ez baitugu

erabaki. Ahalbide hori ez izateak, hain juxtu ere, luzatzen du euskal afera, egungo sistematik, berari atxekirik dauden indar politikoen bitartez, eskaintzen digun jokalekuak konpon ezin dezakeen afera, mina eta gorrotoa sortarazten duen afera eta —hona hemen gauzarik inportanteena— arrazionaltasun bidean

**ESTATUAK ETA BERAREKIN BAT DATOZENEK BENETAKO BAKEA LORTZEKO ETA-REN MALGUTASUN ETA BORONDATEAREN ERDIA IZANGO BALUTE, HONEZ GERO ONIK LEGOKE EUSKAL HERRIA.**

jarri behar den afera. Azken honetan, kokatzen da negoziazio politikoaren proposamena eta, zeresanik ez, beharra.

Baina ez dirudi Estatuak oraingoz erronkari ekiteko prest dagoenik, bere estrategia errepresiboaren barruan 'negoziarioaren' elementua albora badezake ere. Halere, negoziazioa hitzari jarri dizkiodan komatxoak behar beharrezkoak dira, Estatuak, tresna hau desitxuratuz, ezker abertzalea eta euskal

erreibindikazioak porrot egin dezaten ahalgindu daiteke eta. Azken batean, egurra erruz eman ondoren, ezker abertzalea ate txikitik pasaezate dateke espainiar Gobernuaren helburua. Hor, eta ez beste inon kokatuko lirateke irtenbide poliziak 'huts-hutsaren' baliagarritasuna zalantzan jarriz Paktoko hainbat buruzagi politikok egiten dituen adierazpenak.

Sasi-elkarrizketaren amarru honek, ordea, ez du lan errazik, ezker abertzaleko bakarren batek, hainbat aldrebeskeria politiko plazaratuz, estrategia honen alde, berariaz ala ez, egin badu ere. Madrilek nahi baino zailtasun handiagoak ditu ezker abertzalea itzulera gabeko tren horretan sartzeko. Duda izpirik gabe gainera. Izan ere, Aljer-eko elkarrizketek eta ondoren izandako harreman edo kontaktoek argiro erakutsi dute ETA erakundeak, proposamen eta kontra-proposamen truketa horretan negoziatorantz abiatzeko nahikoa malgutasun azaldu duen neurri berean, ez duela gure herria amildegiko bidean jarriko, duela gutxi argitaratu den elkarrizketan eta eritzi publikoan ezaguna den bere barne dokumentazioan konproba daitekeenez. Estatuak eta berarekin bat datozen indar politikoeke benetako bakea lortzeko horien malgutasun eta borondatearen erdia izango balute, honez gero onik legoke Euskal Herria.

**INAKI ALTUNA**

HB-KO MAHAI NAZIONALEKO KIDEA

## Mc. Donelletik Mc. Donald' sera?

**AITORTZEN** dut Mc. Donnell-Douglasek geure diruarekin ezarri behar duen usteko abioi lantegiaren kontuak egunetik egunera gehiago aspertzen nauela. Ideia hori interesgarria izan zen duela ia bi urte, horri buruz Bizkaiko Diputazioaren inguruan zebiltzanak hitzegiten hasi zirenean, baina egitasmoaren zifrak pixka bat aztertu ahal izan zirenean, gaiak ez zuen askorako eman eta orduko Eusko Jaurlaritzako kide garrantzitsu batzuk aurkako iritziak eman zituzten.

Baina 91ko gobernu aldaketek badirudi harrotu egin dituztela sugeak sorgintzen trebeak diren Pradera eta Azua, eta gu denok gogaitzen ari dira enpresarialki bideragarria ez den proiektuaren kontuarekin.

Lehendik azaldu dudana bezala, proiektu horren inguruan mugitzen den paper multzoaren artean zaila izango da folio pare bat egotea, etorkizuneko enpresa horren usteko hustiaren kontuari buruzko datuak dituenik, eta hori Gobernuak bere eraikuntzarako 130.000 milioko dirulaguntza emateko prest dagoela esaten duten arren.

Azua eta Pradera jaunek dituzten datu gu-

txietatik, inoiz ez garelako proiektu serio baten aurrean egon ondorioztatzen da. Funtsean, Mc. Donnell-Douglasek merkatuan jartzeko asmoa duen abioi berri baten hegalak egitea da kontua, eta horrela euskal lantegiak, beharrezkoak izan daitezkeela uste den 400 hegalak egingo lituzke. Hegal bakoitzaren balio erantsia 540 milio pezetakoa izango dela kontutan hartuta, oso erraza da jakitea proposatzen digutena zera dela, datozen hamar urteotan Euskadin 216.000 milio pezetako balio erantsia, aberastasuna —oso kontutan hartzeko zenbatekoa— sortuko duen lantegia ezartzea.

Arazoa instalazio horren kostuak aztertzean sortzen da. Amerikarrek aurkeztutako ikerketen arabera, 202.000 milio pezetako inbertsioa beharko litzateke horrelako lantegia egiteko eta, noski, ez da azkarra izan behar ulertzeko ez duela zentzurik 202.000 milio inbertitzeak, gero balio erantsian 220.000 milio bakarrik ateratzeko; izan ere, inbertitutakoa bakarrik berreskuratuko litzateke, baina ezingo lirateke ordaindu langileen kostuak, hasierako inbertsio horrekin pilatutako

interesak eta, noski, ez eta hamar urte horietan makinak ordezkatzea ahalbideratuko luketen amortizazio fondoak ere.

Beraz, ez dago proiektu hori abalutuko duen enpresariarik, argi eta garbi bideragarria ez delako. Eta horregatik laguntza publikoan jarri dira itxaropen guztiak, HUNO-SAKO meatze hustiaren bera ere bideragarri egingo luketen 130.000 milio pezetako euskal subentzio publikoan, alegia. Orain, hain datu adierazgarriei buruz arreta deitu ostean eta Mc. Donnell-Koreako lantegi batekin bere enpresako zati bat saltzeko akordioa lortu duela jakin ondoren, zalantzan jartzen hasi da 'euskal proiektua'. Ikusten denez, agian ez ditugu abioiaren hegalak egingo, beste zati batzuk baino. Espero dut ez amaitzea bidaiariari hanburgesak ematen eta paktua Mc. Donnellekin egin ordez Mc. Donald'ekin eginen.

**JAVIER OLAVERRI**

GIPUZKOAKO EE-KO IDAZKARI NAGUSIA  
Erredazioan itzulia

## BERRIAK ZIRI




**GUY HERAUD**  
Nazioarteko Zuzenbideko irakaslea  
ENBATA

« Nazionalismo osoek huts egin baldin badute, nazionalismo frustratuek ere bai »




**JOSE RAMON REKALDE**  
Eusko Jaurlaritzako Justizia sailburua  
DEIA

« Gartzeletan berez sartzen den baino jende gehiago dago »



**NURSULTAN NAZARBAIEV**  
Kazakhstaneko buruzagia  
KOMSOMSKAIA

« Errepublika eslaviar eta musulmanen arteko zatiketaren beldur naiz. Hori Harri Arora itzultzea litzateke eta mundu osoa ikaratu egingo luke »



**IOSU SARASUA**  
Eskultorea  
EL MUNDO

« Administra- zioak kulturaren zama lehiaketekin konpondu nahi du »

## ZAKILIXUT

© Olariagak

